

## **DIRU ITURRIAK**

Aurreikusten dugu, dutxak erraztuko dituen gailu honek dutxa aurrenten bikoitza kostatuko duela, bertan dutxa berri bat ezarri beharko dugulako eta horrezgain bertan gure tramankulua joango delako. Aldiz, mantenuaren prezioa edo konponketaren kostua aldakorra izango da, hori beharreko eskulanaren arabera izango da.

Gure enpresa diru sarrera desberdinak izango ditu. Diru sarrera nagusia aktiboen salmenta edo aktiboen instalakuntza izango da, gure kasuan aktiboa dutxan joango den asmakuntza edo dutxa errazten duen tramankulua izango da. Aurretik aipatu bezala hori diru sarrera nagusia izango da, diru sarreraren %85a hartuko duelako. Beste %15a publizitateak lortuko dugu.

Enpresa aurrera atera ahal izateko gure enpresak hasiera batean inbertsio handia egin beharko dugu eta horretarako gure aurrezkien gain mailegu bat eskatzea erabaki dugu. Gure enpresaren kasuan ordainketako bakarreko diru-sarrerak eta ordainketa errepikakorreko diru sarrerak izango dira. Prezioei dagokionez ere 2 motatakoak izango dira; alde batetik prezio finkoak eta bestetik prezio dinamikoak.